

Pint of Science 2023: maiatzaren 22tik del 24ra zientziak lekua hartuko du tabernetan

Pint of Science (PoS) nazioarteko jaialdi bat da, eta 26 herrialdetako hiri askotan ospatzen da data berean. Donostia da hiri horietako bat. Pint of Science 2015ean iritsi zen Donostiara, CIC biomaGUNEko zenbait ikertzaileren eskutik, eta, urtez urte, jaialdiaren programa eta jarduerak haziz joan dira parte-hartzaile gehiagorekin. “Ikus-entzuleak dira interes handiena dutenak, baina zientzialariak ere ilusioz beteta daude ekimen honekin eta zer lan egiten duten erakusteko irrikan daude, zientzia gizarteari helarazteko ardura bere gain hartuz”, adierazi dute jaialdiaren koordinatzaileek.

Maiatzaren 22tik 24ra, hizkuntza ulergarri eta hurbilean emandako 24 zientzia-hitzaldiz gozatzeko aukera izango dute ikus-entzuleek, Donostiako lau tabernetan (Antiguako Ñam, Mala Gissona, Alboka eta Amuitz) eta, aurtengo berrikuntza gisa, Erretereriako taberna batean (Manuel taberna). PoS 2023an, 28 zientzialari beren laborategietatik atera, eta gaurkotasun zientifikoko gaiez jardungo dira giro informal batean. Besteak beste, sendagai adimendunen eta etorkizuneko materialen garapenez edota gure planeta eta adimenaren inguruko bitxikeriez arituko dira, hitzaldiak are atseginagoak egingo dituzten monologo zientifikoak, ikuskizunak, emanaldiak eta sorpresa asko baliatuz. Egitarau osoa [webgunean](#) dago ikusgai.

8. edizio honetan, CIC biomaGUNEko zenbait hizlarik hartuko dute parte, DIPC, Biodonostia, Aranzadi, BCBL, Polymat eta beste zentro batzuetako ikertzaileekin batera. CIC biomaGUNEko ikertzaile **Jordi Llopek nanosendagai motorizatuei buruz hitz egingo du astelehenean, hilak 22, Groseko Mala Gissona tabernan**: “Botika batek funtziona dezan, irentsi edo hartu ondoren, dagokion lekura iritsi behar du. Botikak organismoan sartzen denetik bere helmugara iristeko egiten duen bidea neketsua da eta oztopoz beteta dago. Orain arte, botikak ‘pasibotzat’ hartu izan dira, beren helmugaraino bultzatu behar izaten baitira. Baina motorizatu al daitezke; ‘agente aktibo’ bihurtu al daitezke, beren helburua lortzen laguntzeko eta, ondorioz, eraginkortasuna handitzeko?”.

María Regato CIC biomaGUNEko doktoratu aurreko ikertzaileak hidrokelei buruz hitz egingo du Mala Gissona tabernan, hilaren 24an: hidrokelek sendatu egiten dute, ez garbitu. Bestalde, Cecilia Wetzi eta Giuseppe Misia doktoratu aurreko ikertzaileek 2Dko material organikoen aro berriari buruz hitz egingo dute hilaren 24an, Antiguako Ñam-en.